

Hesteetako mikroorganismoek obesitatean nola eragiten duten argitu dute

Azetatoaren bidez nerbio-sisteman eraginez, gosea eragiten dute mikroorganismoek

Hesteetako mikroorganismoek azetatoa ekoitziz eragiten dute obesitatean eta intsulinarekiko erresistentzian. Ondorio hori ateratu du nazioarteko iker-tzaile-talde batek, saguekin egindako ikerketa batetik. Ikusi dute gantz asko-ko dietak saguen hesteetako mikrobiota eraldatu eta azetato gehiago ekoiztea eragiten duela, eta gantz-azido txiki horrek nerbio-sistema parasinpatikoa aktibatzen duela. [Nature aldizkarian argitaratu dituzte ikerketaren emaitzak.](#)

Obesitateak hesteetako mikrobiotarekin lotura duela jakina zen, baina hori nola gertatzen den, ez. Aurreko ikerke-



ta batean, ikertzaileek ikusi zuten azetatoak intsulina gehiago jariatzea eragiten duela saguetan. Eta azetatoak gorputzean nola eragiten duen ikertze-ko, hainbat esperimentu egitea erabaki zuten. Hala, batetik, azetato-maila beste gantz-azido labur batzuen mailarekin alderatuta, ikusi dute gantz askoko dieta duten saguek azetato-maila handiagoa dutela proportzioan. Alegia, gantz askoko dietak hesteetako mikrobiota eraldatzen du, eta azetato gehiago ekoizten da.

Bestetik, azetatoak garunean eragiten duela ikusi dute, nerbio-sistema parasinpatikoa, eta, ondorioz, intsulinaren eta grelina eta gastrina hormonon jarioa handitzen dela. Azken bi hormona horiek gosea eragiten dute, eta, beraz, saguek gehiago jatea eta gizontzea. Azkenik, ikusi dute gorotz-transplanteak eginda aldaketa bertsuak gertatzen direla saguen mikrobiotan, azetato-mailan eta intsulinan. ●

Errepideek eta trenbideek faunan duten eragin kaltegarria neurtu dute

Garraio-azpiegiturek hegaztietan eta ugaztunetan eragiten dituzten kalteak neurtzeko metodologia bat garatu dute Espainiako Natura Zientzien Museoko ikertzaileek, eta, horren bidez, ikusi dute, azpiegitura horiek gabe, hegaztien eta ugaztunen populazioak % 20 eta % 50 handiagoak izango liratekeela, hurrenez hurren, oraingokoekin alderatuta.


[PNAS zientzia-aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#), eta, haren arabera, Europako lurralde ez urbanizatuaren erdia errepide edo trenbide batetik 1,5 km-ra dago, eta laurdena, 500 metrora. Garraio-azpiegituren dentsitate handiena Europa erdialdean dute, eta txikiena, aldiz, Islandian.

Azpiegituren eragin-eremua neurtzeko, fauna zenbatu dute azpiegitu-

retatik gertu, eta errepiderik eta trenbiderik gabeko lekuetan. Horretarako, Espainia hartu dute oinarri, eta ikusi dute azpiegituren eragina leku ez urbanizatuaren % 55ra hedatzen dela. Espezie kalte-tuenak basoiloa eta eguzki-arranoa dira.

Eragina are handiagoa da ugaztunen kasuan: haien lurraldearen %98ra iristen da, eta ondorio kaltegarrienak katamotzek eta hartzek jasaten dituzte.

Ikertzaileek ohartarazi dutenez, neurriak hartu ezean, egoerak okerre-
ra egin dezake etorkizunean, 2050. urterako 25 milioi km errepide egingo



Garraio-azpiegiturekiko distantzia, km-tan. ARG.: MARINA PINILLA.

batira, eta 333.500 km trenbide. Horietako asko, gainera, oraindik biodibertsitate handia duten herrialdeetan egingo dituztela aurreikusten dute. ●